



Bilboko campus-a

¿Zer da Buddy Program?

Buddy Programme, 2009-2010 ikasturtean jaiotzen da, Deustoko Unibertsitatean egonaldi akademikoa egiten duten **bertako eta nazioarteko ikasleen arteko harremana eta elkarrekintza bultzatzeko asmoz.**

Programa honek bertako ikasleei beste herrialde eta kultura batzuetako ikasleak ezagutzea ahalbidetzen die, era horretan, unibertsitateko esperientzia aberasteko eta zabaltzeko aukera emanez. Horrez gain, programak bertako eta nazioarteko ikasleei kultura berrietan murgiltzen laguntzen die.

Programaren barruan bi rol mota aurkitu daitezke:

- **Big Buddy:** Deusto Unibertsitateko bertako ikasleak
- **Buddy:** nazioarteko ikasleak

Buddy Program birtuala

Unibertsitate askok haien **mugikortasun formatuak dibertsifikatzea** erabaki dute haien programak **eskuragarriagoak izan daitezen**, eta horrek, ikasle asko **programa era birtualean** parte hartzera eraman ditu.

Kasu honetan, **esperientzia on-line** gauzatuko da.

Beraz, beste **pertsona batzuen bizimodua ezagutzeko eta norberaren kultura beste batzuei aurkezteko** interesa baduzu, hau da zure programa!



Parte hartzearen konpromezua

Programaren bi formatuetako batean parte hartuz gero, bertako ikasleek **ECTS 1 eskatzeko aukera izango dute aukeratutako epe amaieran.**

Izena eman ondoren, bertako ikasleek zein nazioarteko ikasleek, konpromezu-inprimaki bat bete beharko dute, zeinetan bakoitzak **programaren barruan zein funtzio bete beharko dituen** zehaztuta egongo den.

Nola eskatu buddy bat?

Deustoko Unibertsitateko ikaslearen profilaren arabera, Buddy Program-a eskatzeko ondorengo inprimaketako bat bete beharko duzu:

- [Bilboko campuseko BERTAKO ikasleak - Big Buddy](#)

Eskaerak jasotzeko azken eguna (ikasle presentzialak):

1.Seihilekoa: Maiatzak 31 // 2. Seihilekoa: Abenduak 15

- [Buddy Birtuala](#)

Eskaerak jasotzeko azken eguna (ikasle birtualak):

1.Seihilekoa: Maiatzak 31 // // 2. Seihilekoa: Urtarrilak 9

**Epe honetatik kanpo eskaerak kudeatu daitezke baina, ez da esleipenik bermatzen.*

Eskaerak eskatutako ezaugarrien arabera kudeatuko dira eta esleipenak ikaslearen eskakizunen araberrakoak izateko ahalegina egingo da.

Esleipenak eskaera erregistroaren hurrenkeraren arabera gauzatuko dira. Ikasle bakoitzeko **eskaera bakarra** onartuko da. Datuen aldaketaren bat beharrezkoa izanez gero, mesedez ondorengo helbide elektronikoetara idatzi:

Bilboko campus-a: buddyprogram.bi@deusto.es

Campus Birtuala: virtualbuddy@deusto.es

Eskaera prozesua amaitzen denean, e-mail bat jasoko duzu esleitutako nazioarteko ikaslearen informazioarekin.

Esleipen prozesua amaitu ondoren, nazioarteko ikaslearekin kontaktuak jarri beharko duzu, zure burua aurkeztu eta elkarrekintza hasteko. Unibertsitateak aurretiaz Buddy-a informatuko du.

Lankidea aldatu nahi izanez gero, e-mail bitartez jakinarazi beharko du, aldaketa eskakizunaren arrazoi eta zergatiak azalaraziz. Aldaketarako aukera izanez gero, Buddy berri bat esleituko zaizu.

Jarrai gaitzazu gure sareetan!

[Instagram Deusto International](#)

[Instagram Universidad de Deusto](#)

[Blog Campus Bilbao](#)